



Udaletxetik Elizara arteko bidea, Txalkor Txistulari Taldea *Alkate Soinua* jotzen ari zela egin dute Udal ordezkariak, gaur arratsean. Salbea entzutera joan dira gaurkoan Udal korporazioan.

Elizan jende ugari bildu da Ignacio Busca Sagastizabalen 'Salbea' 7 ahotsetara, Nemesio Otañoren 'Ave Maria' 5 ahotsetara eta Mariano Garciaren 'Ama Birjinaren edertasun'-a kantak entzutera. Hunkigarria izan da Salbea.

Andramaixetan egun gehiagotan ere egingo dute udaletxetik elizara arteko ibilbidea *Alkate Soinua*

z

lagunduta. Bihar, abuztuak 15, 10:50ean abiatuko dira udaletxetik Eliza Nagusira. Eta, abuztuaren 16an, 10:50ean egingo dute ibilbide bera, 11:00etako Meza Nagusira joateko.

Ibilbide horretan bandera emateko ardura Maitane Unanuek izan du. Ohituraz, zinegotzirik gazteenak eman ohi baitu bandera.

## Abuztuaren 14ko argazkia





